

## HIZKI TTIPIEN HARMONIA

Askotan  
izkiriaturen uzten ez didazun  
gauza asko  
izkiriatu nahiko nuke,  
baina ene hizkiei  
negarra darie,  
itzalaren mugako hegaldian  
egiteke utzi zuten  
hargatik.  
Hizkiek Jainkosen antza  
dute  
askotan,  
beraien bakardadean  
zein duna gorrizko  
gorpua izaten den,  
ez dira existitzen,  
ez dira ezer, inoren arpegio  
lasaiean errautsa jaurtitzen  
duten arren,  
izotzez estalirik dituzte  
beraien eskuak,  
zeintzu laiotzaren mугan  
loturik,  
kaioen ipurdia  
olatu mendekatiek  
astintzen dutenean bezala,  
gure isladaren gainetiko  
aginduak emanaz,  
adatsa baino gehiago  
astintzen duten  
haize boladak bezala  
izan ohi diren  
askotan,  
norberaren eskuak **MOLDATZEN**  
duen izkiriaturiko horrek,  
ipar haizearen notak  
gure aurka jarriaz,  
norberaren eskua **MENDERATZEA**  
lortzen dute.

Jainko-Jainkosek,  
hitzak bezala  
askotan,  
gure irudimenaren muga eza  
liluragarri —zitala—  
moldeatzeaz gain,  
damutasun malko trinkoez  
gure izatea zulatzen dute  
gogorki  
zirrikitu handitako bizidunak  
bihurtuaz,  
zeinetatik  
gaztaro oparo, indar  
ezti eta  
irudimen musikala  
galtzen duten  
larrosa hori petalozko  
ezkutua  
jantzi ezean.  
Bihoakio berorri  
Minerva,  
eta jakin beza  
bere adats azpiko  
ametsik gabe  
ene hizkiak  
ez lirakekeela  
izkiriatuak  
izanen,  
pentagramaren hitz-jario  
musikala  
lez.

EGO SUM QUI SUM

